



ONDARROAKO UDALA

**IBAIONDO 4KO APARKALEKUAK KONTZESIO BIDEZ EDUKITZEKO
BALDINTZA PLEGUEN LABURPENA**

1-KONTZESIO PLAZA KOPURUA: 106 aparkaleku (horietatik 3 mugikortasun murriztua duten pertsonak garraiatzen dituzten ibilgailuentzat)

2-KONTZESIOAREN EPEA ETA PREZIOA

KONTZESIOAREN EPEA	PREZIOA	ITP/AJD (%)	FIDANTZA (%)	GUZTIRA (€)
30 urte	14.600	584	438	15.622 €
5 urte	3.500	140	105	3.745 €

3-KONTZESIOAK ADJUDIKATZEKO PROZEDURA: Zozketa

4-BETE BEHARREKO BALDINTZAK ETA LEHENTASUNAK:

BALDINTZA OROKORRAK

- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean izatea

LEHENTASUNAK:

1.MAILAKO LEHENTASUNA: Ondorengo baldintzak betetzen dituztenak.

- Ondarroako Biztanleen Udal erroldan errolatuta egotea eskariak aurkezteko epea aurretik.
- Gutxienez ibilgailu baten titularra izatea eta ibilgailu horren zergak Ondarroan ordaintzea. Enpresaren ibilgailuen kasuan, ibilgailuaren titularra ez bada, ziurtagiri bidez frogatu beharko da berak soilik erabiltzen duela ibilgailu hori.

2.MAILAKO LEHENTASUNA: Ondorengo baldintzak betetzen dituztenak.

- Gutxienez ibilgailu baten titularra izatea. Enpresaren ibilgailuen kasuan, ibilgailuaren titularra ez bada, ziurtagiri bidez frogatu beharko da berak soilik erabiltzen duela ibilgailu hori.
- Jarduera ekonomikoen gaineko zergan (IAE) altan egotea, Ondarroako udalerrriaren eremuan, gutxienez, edozein epigrafe ekonomiko edo profesionaletan.

3.MAILAKO LEHENTASUNA: Ondorengo baldintzak betetzen dituztenak.

- Gutxienez ibilgailu baten titularra izatea. Enpresaren ibilgailuen kasuan, ibilgailuaren titularra ez bada, ziurtagiri bidez frogatu beharko da berak soilik erabiltzen duela ibilgailu hori.
- Ondarroako Udalerrian etxebizitza bat izatea, eta Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (IBI) ordaintzea.

5-AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

- Eskiera-orria sinatuta
- NANaren fotokopia. Beste inoren ordezkariaren kasuan, ordezkariaren NANaren fotokopia eta legezko ordezkariaren egiaztatzen duen dokumentuaren fotokopia (notario-ahalordea).
- Mugikortasun urria duten pertsonentzako aparkalekua eskatuz gero: Desgaitasuna dutenentzat ibilgailua aparkatzeko txartelaren fotokopia.
- Enpresa-ibilgailuen kasuan (betiere, ibilgailuen zerga Ondarroan ordaintzen bada): Ibilgailuaren titularra ez bada, enpresako gerente edo administradorearen Ziurtagiria, ziurtatzeko eskatzailea dela ibilgailuaren erabiltzaile bakarra eta ibilgailuaren zirkulazio baimenaren fotokopia.

6-ESKARIEN AURKEZPENA:

- **Epea:** 2021eko uztailaren 2tik abuztuaren 22rarte.
- **Tokia:** Udaletxeko Erregistro Orokorra (Kantoipe 3)
- **Ordutegia/Horario:** 09:00etatik 14:00etara

Ondarroan, 2021eko ekainaren 30ean
Alkatea
Zunbeltz Bedialauneta Ibaibarriaga

